

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ESTAVILLOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### Lizitazioa, landa finkak errentan emateko

Estavilloko kontzejuak, 2021eko urriaren 28an egindako bileran, erabaki zuen Estavilloko Administrazio Batzarraren jabetzako ondare finka publikoen errentamendurako baldintza ekonomiko-administratiboan agiria onestea. Horren bidez, enkantera aterako da erroldan inskribatutako 9 finka publikoren alokairua.

1. Kontratuaren xedea: Enkante bidez esleitzea, eskaintza handiagoa ahoz egiteko prozedura erabiliz, Estavilloko Administrazio Batzarraren 9 landa finkaren alokairua, zeinaren ezaugarriak eta lizitazio prezioak baldintza agirian zehaztuta baitaude. Lote kopurua:

- Katastroan inskribatutako 7 lote; 9 hektarea eta 1 hektareaa arteko azalerak.
- 5 hektarea eta 2 hektarea arteko azalera duten 2 lote.

2. Kontratuaren iraupena: 6 urte.

3. Enkanterako lizitazio oinarria: Finka bakoitzerako klausula ekonomiko-administratiboan agirian adierazten dena.

4. Prozedura eta esleitzeko era: Prozedura irekiaren bidez egingo da, enkante bidez, eskaintza handiagoa ahoz egiteko prozedura erabiliz, eta proposamenak baloratzeko irizpide bakarra erabiliko da: prezioa.

5. Parte hartzeko eskaera: Eskaerak aurkezteko 10 egun naturaleko epea izango da, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta. Eskaeran harremanetarako datuak jarri beharko dira, enkantearen behin betiko eguna jakinarazi ahal izateko.

6. Prezioak berrikustea: Errentamendu prezioa areagotu egingo da lehen urtetik aurrera: aurreko urteko errentari urtearteko KPIa gehituko zaio. Lehen eguneratzerako erreferentziatzko hila esleipen hila izango da.

7. Errenta ordaintzea: Lehenengo ekitaldia, behin betiko esleipena sinatzen denean; gainerako ekitaldiak, banku transferentzia bidez, irailaren 1a eta 30a bitartean.

8. Behin betiko bermea dirutan, balore publikotan edo banku abal bidez eratuko da.

a) Behin-behineko bermea: Ez da eskatzen.

b) Behin betiko bermea: Esleipen zenbatekoaren ehuneko 5.

9. Baldintza ekonomiko-administratiboak jendaurrean jartzea: Agiria ikusgai dago administrazio batzarraren iragarki taulan. Gainera, agiriaren kopia eska daiteke email helbide honetan: [juntaestavillo@hotmail.com](mailto:juntaestavillo@hotmail.com).

10. Enkantearen tokia eta eguna: Eskabideak aurkezteko epea amaituta, hiru egun naturaleko epean jakinaraziko zaie eskatzaileei enkantea zein egunetan eta zein ordutan egingo den, eta kontzejuko iragarki taulan ere jarriko da.

Estavillo, 2021eko urriaren 29a

*Lehendakari-errejidorea*  
**ISABEL MATAMOROS DÍAZ**